

ANNA BARSEGHIAN

Feminismoa oraindik hitz gordina den lekua...

XX. mendea emakumeen aktibismoaren mendea izan zen, hezkuntzarako eta esfera publikorako sarbidearen aldekoa, lanaren genero banaketa zela medio ukatuta izan baitzuten. Borroka egin zuten, besteak beste, boto eskubidearen alde eta beren gorputzen gaineko kontrolaren alde. Bi Mundu Gerren artean, Sobiet Batasuna gizarte esperimenduzko laborategi erraldoia izan zen, eta sobietar emakumearen kasua, aldiz, “ereduzkoa”. Bigarren Mundu Gerraren ostean, hala ere, SESBek bere burua isolatu zuenez, deuseztatu egin zen Iraultzaren ondoren egindako aurrerapen guztia. Askotariko klaseak ezabatu ziren. Honelako ohorezko tituluak sortu ziren: *Ama heroikoa* (10 seme-alaba baino gehiago) eta *Amaren Aintzazko Ordena* (7 eta 9 seme-alaba bitartean). Emakume ezkongabeek ez zuten amatasuna eskatzeko edo pentsio bat jasatzeko eskubiderik. Soilik 1953an, Stalinen heriotzak etenarazi zuen emakumeen aurkako indarkeriazko ziklo hura. Hala eta guztiz ere, hurrengo urteetan, emakumeak behartu zituzten nagusiki honelako eginkizunak betetzera: zuzendaritzan parte hartzeko aukera txikiak eta erabakietan parte hartzeko are txikiagoak zituztenak, hain zuzen. Boterea *Politburo*ko eta Alderdi Komunistaren Idazkaritzako gizonaen eskuetan zegoen.

Eta gaur zer? Sobietarren hirurogeita hamar urteko agintaldiaren ondoren, zein da aurreko sobietar aldi haren ondorena? Bertatik aipa ditzagun Armeniako gizarte oraindik antzeman daitezkeen kultur aurreiritziak eta emakumezko nahiz gizonezkoen arteko rol estereotipoak. Hemen feminismoaz hitz egiten duzunean, sistematikoki hartzen da mehatxutzat, kanpoko ideologiatzat, “balore nazionalekin” bateraezina. Armeniako emakumeek, ordea, Iraultzaren aurretik hasia zuten beren emantzipazioa: Anahide Ter Minassian historialariak emandako zifren arabera, Armeniako 38 emakume graduatu ziren Genevako Unibertsitatean Lehen Mundu Gerraren aurretik; tarte berean Suitzako 43 emakume bakarrik graduatu ziren¹. Gainera, munduko lehen emakume enbaxadorea Diana Agabeg Apcar izan zen, Armeniako Lehen Errepublika ordezkatu zuena Japonian 1918tik 1920ra bitartean, Alexandra Kollontai sobietar politikaria baino lehenago². Egia esan, gure “balore nazionalak” harro egon daitezke lorpen haietaz. Gaur egun, ordea, ez dago Armenian emakume ministrorik. Inoiz ez du emakume batek izan lehen ministroaren edo lehen ministrordearen betekizunik Independentziaz geroztik. Lau emakume diputatu bakarrik daude Batzar Nazionalan, guztira 131 izanik. Inork emakume bikain bati “*Tghamard kin*” (“emakume maskulinoa”) deitzerik duen bitartean, aurrera jarraituko du sexuen arteko kultur banaketak. Horregatik da funtsezkoa feminismoaz hitz egitea, feminismoaren baloreak inguratzen dituzten klixteen aurka borroka egiteko, helburua izanik esparru bat zabaltzea, gaur egungo Armeniako gizarte eta sormen iruditeriak bere garapena izan dezan. Gizarte eta ikur inguru horretantxe ulertu nahi ditugu guk iruditeriazko esparruak, non aurrerapausoek atzera egiten dutenez lekua egiten ari zaion indarkeriari, bidegabekeriari eta axolagabetasunari. Horregatik sortu eta antolatu genuen proiektu bat, intelektualak, aktibistak eta artistak elkartuko zituena, “feminismoa” oraindik hitz gordina den herri batean.

One step forwards, two steps back (Pauso bat aurrera, bi pauso atzera) izeneko proiektua Erevanen burutu zen (Armenia) joan den irailean, Utopianak antolatuta (www.utopiana.am), honako hauekin elkarlanean: Kanayq Hayots elkarteak, Erevaneko Unibertsitate Publikoko Soziologia Saila, eta The Club kafetegia eta erakustokia.

ANNA BARSEGHIAN artista eta komisarioa da. Utopiana elkarteko kidea. www.utopiana.am Genevan bizi da.

2. irudia.- © Joëlle Flumet, Geneva

2.a irudia.- © Tigran Khachatryan, Erevan.

Irudi horiei buruzko iruzkinak (1., 2., 2.a):

But what do they (still) want? horra posterretan egiten zuten galdera erretorikoa: Genevako MLFk (Emakumeen Askapenerako Mugimendua) hirurogeita hamarreko urteetan atera zituen poster historikoen erreproduzioekin batera erakutsi zituzten. Poster horiek, alde batetik, gizarte eta kultur prozesuen konplexutasuna adierazteko bideak dira; beste alde batetik, ikusizko estrategia bat da, irudiaren eta emantzipazioaren eragin politikoa azpimarratzen duena.

3. irudia. – Kirsten Dufour, Kopenhage

Let us speak now, bideo bilduma bat da, elkarrizketa sail bat duena, Kirsten Dufour daniar artistak osatua. Orain arte 40 bat bideo dira, gehienak Estatu Batuetakoak, eta hirurogeita hamarreko urteetako mugimendu feministan parte hartu zuten emakume artista aktibisten ahotsa agertzen dute, baita, hurrengo belaunaldietakoak izan arren, beren arte lanean nahiz beren aktibismoan ikuspegi feminista duten emakumeena ere. Armeniako emakume artistekin ere elkarrizketa asko egin zituen.

4. eta 5. irudiak. - Nancy Agabian, New York

Water and Wine izeneko *performancea*, emakumeek Armeniako Eliza Apostolikoan betetzen duten roleri buruzkoa da, eta honela osatuta dago: Agabianen *Me as her again* oroitzapenetako pasarte narratiboak, bere familiaren historian oinarritutako bakarriketak, elizako esperientziak, eta armeniar-amerikar komunitateko kideekin izandako elkarrizketak.

6. irudia. - © Ursula Biemann, Zurich

Writing Desire bideo entsegu bat da, Ursula Biemann artista suitzarrak egina. Gaia du interneten dagoen ametzeko pantaila berria eta zer-nolako eragina daukan horrek hirugarren mundutik lehen mundurako dagoen emakumeen gorputz garraio globalaren gainean. Nahiz eta Filipinetako adin txikiko '*pen pals*' (posta lagunak) eta posta bidezko ezkongai post-sobietarrak aro digitalaren aurretik ere parte izan ziren sexu truke transnasionalean eta Gerra Hotzaren osteko irrisaren merkatu plazan, internetek bizkortu egin ditu transakzio horiek. Bideoak hausnarketa sakona eskaintzen die ikusleei halako trukeek politika, ekonomia eta generoaren ikuspegitik nabarmen ageri dituzten desberdintasunei buruz. Hala, interneteko eroslearen begirada zorrotza simulatzen du, irudikatutako bikotekide otzan, tradizional, aurre-feminista, baina internet bidez gastuak murriztuko dizkion horren bila ari denean.

7. irudia.- Anjalika Sagar, Londreseko OTOLITH GROUPEko kideak *OTOLITH* izeneko dokumental esperimentalak aurkeztu zuen. Hiru une historiko hauek lotzen ditu: XXII. mendeko etorkizun mutantea, XXI. mendearen hasierako giroko beldurra, eta XX. mendearen erdialdeko Independentziaren osteko aroa. Off-eko ahotsa etorkizun arriskutsu batetik mintzo zaio ikusleari, orainaldia hondakin historikotzat hartzen duen geroaldi batetik. Mintzamolde hori dela medio, Usha Adebaran Sagar doktoreak, fikziozko kontalariak, gizateriaren bilakaeraz espekulatzen du bere arbasoen artxiboei buruzko ikerketa batean barrena: Anjalika Sagar XXI. mendeko ikertzailea eta Anasuya Gyan Chand andrea, Anjalika Sagarren amona eta XX. mendeko feminista.

8. irudia. – Hitzaldiak: (ezkerretik eskuinera) Michèle Riot-Sarcey (Paris), Biljana Kasic (Zagreb), eta haiekin batera, Anna Barseghian (Geneva-Erevan).

OHARRAK ETA ERREFERENTZIAK

¹ A. Ter Minassian, “Elites arméniennes en Suisse” (Suitzako armeniar eliteak), H-L Kieser (ed.), *La question arménienne et la Suisse (1896-1923)* (Armeniar auzia eta Suitza), Zurich, Chronos Verlag, 1999.

¹¹ Sobietar emakumearen historia hemen dago zirriborratuta: F. Navailh, “Le modèle soviétique” (Sobietar eredua), M. Perrot, G. Duby (ed.) *Historie des femmes en Occident* (Emakumeen historia Mendebaldean), 5. alea, Paris, Plon, 1991.